



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-05-17**

VIURTEA 1.436.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Euskal Kantarien III. Topaketa hasiko da gaur Anje Duhalderekin

LEITZA Aurten Leitza aukeratu dute topaketarako; gaur eta bihar izango dira «kantua herrira zabaltzeko» ekitaldiak

EGITARAUA Euskal kantugintzaz ariko da Duhalde; bihar, Benito Lertxundi eta Gorka Urbizurekin mahai ingurua 6-7



E. EZEIZA

KOLDOBIKE MUJIKA GEHITUKO KIDEA

«Homosexualitatea beti izan dela erakutsi nahi dugu erakusketa honekin»

TOLOSA Gehitu elkarteak ikusgai jarri du Tolosako Kultur Etxean historian zehar ospetsu egin diren homosexualen erakusketa 2



Atzoko Bertso Txapelketako une bat. N. URBIZU

Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketan, Kultur Etxea jendez beteta

ALEGIA Zumarraga-Urretxu, Alegia eta Goierri-Asteasuko taldeak aritu ziren bertsotan 5

Zizurkilen eta Alkizan jarraitzen dute kultur ekimenekin

KULTURA Atzo amaitu zen Iruran Kultur Astea, jubilatuen ibilaldi neurtua, pilota eta bakarrizketekin 7

Tolosaldea IKT oso ondo aritu da Espainiako Igeriketa Txapelketan

IGERIKETA 10 igerilarik hartu dute parte; hegats igeriketakoak ere maila ona ari dira erakusketan 3

E **Elkarrizketa**

KOLDOBIKE MUJIKAK > Gehituko kidea



ESTI EZEIZA

«Homosexualitatea beti izan dela erakutsi nahi dugu»

Gizartea » Historian zehar, arlo ezberdinetan ospetsu egin diren pertsona homosexualak agertzen diren erakusketa prestatu dute Gehitukoek; ikusgai da Kultur Etxean.

ESTI EZEIZA

Historia itzal handiko gizonezko eta emakumezko homosexualen baterik dagola agerikoa da, haiek behar adinako naturaltasunez tratatu ez badira ere. Orain, Gehitu, Gipuzkoako Homosexual eta Transexualen elkarteak erakusketa bat jarri du Tolosako Kultur Etxean. Pertsona ospetsu hauen lanak agertuz. Horien artean aurkitu ditzazkegu: Virginia Wolf, Martina Navratilova, Alejandro Amenabar, Tchaikowski, Oscar Wilde... Erakusketa honen inguruan mintzatu da Koldobike Mujika (Errezil, 1951).

Nondik sortu zen erakusketa hau egitearen ideia?

Gehituk Hezkuntza Batzorde bat du, eta antolatutako ekimenen ar-

tean, duela bi urte, erakusketa bat egitea pentsatu zuten, *Homosexualak historian* zehar izenekoa.

Zein da bere helburua?

Orohar, honen helburua da homosexualitatea betidanik existitu dela erakustea, eta aldi berean, ikustaraztea. Horretarako, ikusi genuen, bide izan zitekeela, beraien bizitzan, arlo profesionalen ospetsu izan diren pertsonak zeintzuk diren agertzea. Askoren orientazio sexuala zein zen ez baitago agerian, eta ziurtzat jotzen baitugu heterossexualizazio zirela. Helburua ez da homosexualitatea lau haizetara zabaltzea, baizik eta, lehen ere bazeudela erakustea.

Hauetako askoren sexualitatea ezkutatu izan da.

Erakusketa egiterako uanean, historia osoa hartu nahi izan dugu. Kristo Aurreko seigarren mendetik 20.era artekoa. Beste irizpideetako bat zen, arlo guztietako pertsonaia hartzeta eta emakume eta gizonezkoen pareotasuna lortzea.

Zein da homosexualitatearen historia hori?

Grezia klasikoa eta Erromatar

garia homosexualitatea nahiko arrunta zen. Enperadore asko homosexualak ziren. Gero, 5. mendetik 16.era arte, sekulako hutsunea dago, ia ez dugu inor aurkitu, orientazio hori zuenik. Bila aritu gara, baina ez dugu aurkitu.

Zergatik hutsune hori?

Gizakiak garenetik existitzen dira homosexualak. Garai horretaz egiten dugun irakurketa bat da, ezkutatu, jazarri, eta gartzelaratu egiten zirela. Gainera bereizketa bat egin daiteke gay eta lesbien artean. Lesbiana gutxiago aurkitu baitugu. Hala ere, komentuetan ematen zela jakin izan dugu, datuak baititugu. Horren adibide, Erdi Aroan, bi kontzilio onartu ziren, esaten zutenak, mojek ezin zutela elkarrekin lo egin, ez eta atea giltzatuta egin, nahiz argia itzalita.

Hurrengo mendeetan, egoera hobera joan al zen?

Hamaseigarren mendetik hemezortzira arte, fenomeno bat gertatzen da, non emakume aristokraten inguruan, elkarren artean harreman berezi batzuk ematen ziren, lesbikoak deitu daitezke-

nak. Horren aurrean, esaten zuten, hau prestakuntza bat zela, ondoren, gizonezkoekin harreman sexualak izateko. Gero, 19. mendean amaieran, sexologia diziplina sortzen da, eta honen baitan, homosexualitatea, patologiatzat jotzen da, eta lesbianismoa, gaixotasun bezala.

Gaurkoa egun berezia da.

Gaurko egunez, 1990. urtean, Osasunaren Munduko Erakundeak, bere buruko gaitzen zerrendatik kendu zuen homosexualitatea. Orain, egun hau, homofobia eta transfoniaren aurkako egun bezala izendatzea nahi dugu Nazio Batuen Erakundeak. Hau instituzionalizatzea eskatzen dugu. Baina oraindik ez dugu lortu.

Zeinentzat izan da zailagoa bidea eraikitzea, emakumeentzat, edo gizonentzat?

Nire ustez, bizitzako arlo gehienetan bezala, emakumezkoena. Lesbianen kasuan, suposatzen zen emakumeek ez zutela sexualitate propiorik. Horregatik, gizonezkoak epaituak izaten ziren, eta kartzelara eramaten zituzten. Baina behintzat, onartzen zen, sexualitate propioa bazutela. Emakumeek dagokionean berriz, hauek erotzat jotzen ziren.

Gehituk zer suposatu du Euskal Herriko homosexualen historian?

Gehituk leku garrantzitsua lortu du gizartean. Duela hamar urte inguru jaio zen, eta parte zuzena izan du orain arte onartu diren legeetan. Hala ere, hasierako aldarrikapenak lortu baditugu ere, normalizazio sozialaren alde lan egin beharra daukagu oraindik ere. Horretarako, hainbat kanpaina jarri ditugu martxan. Horieta bat da Lesgaizale ekimena. Honen baitan, merkataritza sektoreratu zutela eta hauen atxikimenduak biltzen saiatu gara. Ekimen honek nahiko arrakasta izan du. Bestetik, heziketa pograman, ikastetxetara joan gara, gazteekin homosexualitateaz hitz egiteko asmoz. Honez gain, jaialdi eta ekitaldi publikoetan parte hartzen dugu, abesbatza ere badaukagu, eta Hiesaren inguruan lan egiten ari gara. Beraz, ez gaude geldirik, eta lan handi egiten ari gara etorkizunera begira ere, egoera gero eta hobea izan dadin.

L **Laburrak**

Gorrotxategiri omenaldia egingo diote gaur goizean

GIZARTEA » Jose Mari Gorrotxategiri omenaldia egingo diote gaur. Antolatutako ekitaldien baitan, 10:50ean, Dantzari eta Txistularien emanaldia izango da Plaza Zaharrean. Ondoren, 11:00etan, omenaldi ekitaldia bera izango da Udaletxeko Batzar Aretoan. Gainera, ekitaldia ikusteko pantaila erraldoi bat jarriko dute kanpoaldean. Bestalde, 12:00etan inauguratuko da *55 urte argazkitan* erakusketa, Aranburu Jauregian.

Lan taldearen metodologia ikasgai izango da

GIZARTEA » Lahar, Eskuhartze Sozialerako Elkarteak Lan taldearen metodologiari buruzko ikastaro bat antolatu du. Hau, hilaren 26tik 30era bitartean izango da, arratsalde. Hizlaria Irantzu Gabilondo izango da. Izen-ematea 943 42 80 13 edo 663 05 72 23ra deituta egin daiteke. Baita www.gizalde.com webgunean ere. Gainera, parte-hartzea doakoa da.

Hiribusaren ibilbidean aldaketa batzuk izango dira

AZPIEGITURAK » Astelehenera aurrerako hiribusak bere ibilbidea aldi baterako aldatuko du Berazubi auzoko kolektorearen obra dela eta. Lanek irauten duten bitartean, hiribusaren geltokia Martin J. Iraola kaletik Paper Kalera aldatuko da.

Mendizaleak ikustera joateko autobusak, bihar

AISIA » Biharko, Aralarko Adiskideak elkarteek autobus zerbitzua antolatu dute. XIV Orduetan parte hartzen dutenen familiakoei eta adiskideek Tolosako Zezen-Plazatik Ametzetara joateko modua izan dezaten. Autobusa 20 minututik 20 minutura aterako da Zezen Plazatik.

Txapin festa ospatuko dute gaur, hiriko gazteek

AISIA » «Gazteek kalea hartzeko eguna» izango da gaurkoa, Txapin festa ospatzen baita hirian. Egun guztian zehar izango dira ekitaldiak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Tolosaldea IKTkoek emaitza onak Espainiako Igeriketa Txapelketan

Igeriketa » 10 igerilarik hartu zuten parte; hegats bakarreo igeriketan ere maila handia dutela ari dira erakusketa eskualdekoak.



Tolosaldea Igeriketa Taldeko kideetako batzuk. HITZA

ERREDAKZIOA

Espainiako Igeriketa Txapelketan parte hartu dute Tolosaldea Igeriketa Taldeko mailako 10 kidek. Asuriasen junior mailako Itziar Oteiza, Leire Muñagorri, Joana Cuadrado, Eneka Muñagorri eta Aitor Lekuonak hartu zuten parte, eta Mallorcan, berriz, infantil mailako Endika Arandia, Iosu Carrera, Nestor Etxart, Jokin Otaegi eta Marta Alonso aritu ziren. Txapelketetan parte hartzeko aukera izatea nahiko arrakasta da, eta gainera, emaitza oso onak lortu zituzten.

Itziar Oteizak 50 metro bizkarrezkoan seigarren denboran onena egin zuen, eta 100 eta 200 probetan marka onak egin zituen. Eneka Muñagorri, berriz, zortzigarren egin zuen 200eko proban. Taldeka ere emaitza bikainak lortu zituzten eskualdeko igerilariek.

Bestalde, infantil mailakoan,

Marta Alonso bikain aritu zen: 100 tximeleta eran bosgarren postua lortu zuen, 200 bizkarrezkoan hamaitgarren, eta 100 libretan hamabigarren. Jokin Otaegi, Iosu Carrera eta Endika Arandia ere oso ondo aritu ziren.

Hegats bakarreen ere fin

IKTkoak ere bikain ari dira hegats bakarreen. Mara Varela oso ondo aritu da Italian Europako junior Txapelketan. Bestalde, Ion Molinero, Iñigo Sanz, Jokin Zubizarreta, Inge Zubeldia eta Adriana Gu-

tierrez de Rozas kadeteen mailako txapelketan lehiatuko dira. Nagusietan, aipatzekoa da Patxi Mongek egindako lana, eta ondorioz, asteburu honetan Mallorcan ariko da Kluben Arteko Munduko Txapelketan. Trabesiarren ere, Gregorio Mancisidor eta Martin Errondosoro maila ona ari dira erakusten, eta horren adibide da Bidasoan eta Zarautzen oso ondo aritu zirela.

Argi dago, beraz, Ion Espina eta Maddi Soroa teknikoak lan handia ari direla egiten igerilariek emaitza hauek lortzeko.

Gutunak

«(Indar okupatzaileak kanpora!»

Maiatzak 13 asteartea, eguraldi ederrarekin argitu da eguna, umea hartu eta garraio publikoa erabiliz abiatu naiz Amezketatik Tolosara hainbat enkargu egiteko asmotan.

Dena ondo zihoan Tolosara iritsi arte; autobusa Benta-Haundiko sarreeratik sartzen da eta beste askotan bezalaxe, Espainiako indar armatuak kontrola dauka ezarrita errepidean. Hauetako batek autobusb gidariari gelditzeko agindua eman eta ondorenean armaturiko 2 guardia zibil autobusera igotzen dira, hauetako bat nortasun agiriak eskatzen hasten da bidaiari guztiei, ondorenean niregana etortzen da eta poltsa erakusteko esaten dit, segidan berau arakutzen duelarik. Bitarte horretan besoetan nuen urtebeteko umea belduriturik negarrez hasten da eta berehala alde egiten du guardia zibilak bereaiek nahi zutena lortu eta gero, autobusean gindoazen guztioi beldurra hezurretaraino sartzea, arma eta guzti. Tolosaldea bus garraio publikoko autobusetan ere ez gara aske!

Honekin batera aipatu nahi nuke zoritzarrez Euskal herritarrok egunero jasotzen ditugula horrelako erasoak PNV-PSOEn aginduz eta beraien polizien eskuatik, Ertzaintza, Polizia nazionala, Guardia zibila... eta hauek ere torturak dira!

Animatu nahi zaituztet edozein eraso, identifikazio, jazarpen edo kontrolen ondoren salatu dezazuen komunikabideen bitartez herritarrak jakin dezaten zer gertatzen den egunero kalean PSOE eta PNVren aginduz, zeren Tolosan ez du PSOEk agintzen, eta prekaritatearen aurkakako kartelak ez ditu Guardia Zibilak kentzen, Udaltzaingoa baizik.

Bestalde aipatu nahi nuke egun hauetan gure eskualdekoa den Julen Zelarain eta beste hainbat herritar, PSOEn aginduz antzetzutako epaiketa fartsa baten bitartez jasaten ari diren eraso, eta guztia gure eskubideen defentsan Euskal Herriaren alde lanean jarduteagatik, nirea bezalako salaketa bat egiten da eta poltsa erakusteko esaten dit, segidan berau arakutzen duelarik. Bitarte horretan besoetan nuen urtebeteko umea belduriturik negarrez hasten da eta berehala alde egiten du guardia zibilak bereaiek nahi zutena lortu eta gero, autobusean gindoazen guztioi beldurra hezurretaraino sartzea, arma eta guzti. Tolosaldea bus garraio publikoko autobusetan ere ez gara aske!

Hau antzetzutako epaiketa politiko huts bat besterik ez da, beste hainbat bezala (18/98 epaiketa, Gazteen epaiketa, Ibarra 7 gazteak... non helburua Euskal Herriaren alde lanean egunero dirdarduten herritarrak belduritu, desaktibatu eta kartzelaratzeta den, baino jakin dezatela ez gaituztela kokilduko, ez gaituztela geldituko.

Gure eskubideak zapalduak ditugu, aski da! Euskal Herriaren alde eta gure eskubideen defentsan, jo ta ke!

Leire Saizar Altuna. Aduna.

Laburrak

Sahararen aldeko elkarretaratzea

TOLOSA » 'Maiatza borrokan' jardunaldien baitan, gaur 17:30ean Mendebaldeko Sahararentzat autodeterminazioa eta independentzia lelopean elkarretaratzea deitu dute gaur, 17:30ean Bilbon.

Zurriola Musika Eskolakoekin elkartrukea

ALEGIA » Loatzo Musika Eskolak Zurriola Musika Eskolarekin elkartrukea burutuko du gaur, 17:00etan. Musika tresna desberdinak izango dira entzungai Alegiko Kultur Etxean.

Iragarki laburrak

LANA

- **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da urneak zaintzeko. Deitu 685 72 20 47 ala 635 71 24 41 zenbakira.
- **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsoba behar dugu. 685 22 70 58.
- **Zaintzailea.** Edadeko pertsonak zaintzeko, esperientzi handiko emakume euskalduna eskaintzen da. Kotxea ere badauk. 680 24 42 81.

SALGAI

- **Etxebizitza.** Tolosa erdialdean bi logelako etxebizitza salgai. Egoera onean. Oso merkea. 665 70 86 35.

ARAMBURU

- Salgai (Alkiza).** Etxe handia lursailarekin, 4.000m², guztiz eraberritua.
- Salgai (Tolosa).** Etxebizitza, Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000pzta)
- Salgai (Tolosa).** Etxebizitza garajearekin, Trinkele auzoan.
- Salgai (Tolosa).** Etxebizitza, Nagusia kalean, 1. Igozalearekin sartzeko moduan eta beste era berberitzeko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000pzta negoziagarriak)
- Salgai (Tolosa).** Etxebizitza, Martin Jose Iraola kalean.
- Salgai (Ibarra).** Etxebizitza, San Inazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000pzta)
- Salgai (Tolosa).** Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000pzta)
- Salgai (Ibarra).** Lokala, Euskal Herria kalean.
- Salgai.** Garajeak, San Frantzisko eta Amarozen (Tolosa) eta Itoizgan (Ibarra).
- Salgai edo alokatzeko (Lasarte).** Lokala, tximiniarekin, erdiguinean.
- Alokatzeko (Tolosa).** Etxebizitza, lurre auzoan, sartzeko moduan.
- Alokatzeko (Tolosa).** Garajeak, San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batibiler Zaldibian.
- Alokatzeko (Ibarra).** Pablioi industriala, Leaburuko bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16



Helga Massetaniren lanak Gurean

VILLABONA » Helga Massetaniren lanen erakusketa atzo zabaldu zuten Gurea aretoan. Maiatzaren 23ra arte egongo dira Villabonan bizi den artista argentinarren lanak. Erakusketaren izenburua *Lanak 2008* da. Artisten hizkuntza erabiliz erantzuten du

bere pinturaz galdetzen zaionean: «Askatasuna, inkonszientzia, barne estetika, nire esentzia, primitiboa...». Massetaniren hitzek duten esanahia ikusmenaz lantzeko aukera eskaintzen du, beraz, *Lanak 2008* erakusketak. HITZA

Urkizutik Mendikutera txangoa

ERREDAKZIOA

Urkizuko Auzo Elkarteko kideek txangoa antolatuta dute datorren igandera, hau da, hilaren 25erako. Goizean, 09:00ak aldera abiatuko dira Urkizuko frontoitik eta

Albizturko Mendikute mendialdera bideratuko dira. Urkizura eguerdi alderako itzuliko dira, eta hori dela-eta hamaiketerako eramatea gomendatzen dute.

Antolatzaileen esanetan, mendi

irteera bereziki auzoko gaztetxoek zuzendua dago. Bertan izena emateko 652 70 96 80 telefono zenbakira deitu beharko dute interesatuek. Ekimen hau Urkizuko Biziberritze proiektuaren baitakoa da.



Txalaparta eta ukendu ikastaroak

LARRAUL ● Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, asteazken arratsaldean txalaparta ikastaroari ekin zioten Larraulen. Sei bikotek parte hartuko dute ikastaroan. Egunak eta ordutegiak banatu dituzte bikotek artean, eta astelehenean, 19:00etan, asteartean 18:00etatik aurrera eta asteazkenean 17:30etatik aurrera izango dira. «Oso giro onean» eta ikasteko «ilusio handiz» hasi dira txalapartarekin. Bestalde, ukenduei buruzkoa ere hasi da. Bi talde daude eta guztira 27 lagun ari dira parte harzten Pili Otaegiren gidaritzapean eta «oso giro onean». HITZA

Laburrak

Elkarretaratzea herriko hezkuntz proiektuaren alde

IBARRA ● Haur Eskolako Eskola Kontseiluko eta Ikastolako Errektore Kontseiluko gurasoek Udaltzatzak osoko bilkuran hartutako erabakia atzera botatzea eskatzen jarraitzen dute. Partzuegoan sarzetzeko presarik ez dagoela esan dute, «hurrengo urteetan har daitkeen erabakia da eta». Herriko hezkuntz proiektuaren alde beste ahalegin bat egingo dutela ere azaldu dute. Horregatik, etzi, 17:00etan plazan egingo duten elkarretaratzean parte hartzeko gonbidapena luzatzen dute.

Izen-ematea zabalik pilota txapelketetarako

VILLABONA ● Aurtengoz ere Behar-Zana kirol elkarteak antolatuta, irekita dago jada Villabonako Santio festetako pala, eskuz federatu gabean eta frontenis txapelketetako izen-ematea. Txapelketa Aduana, Zizurkil, Asteasu, Alkiza, Anoeta eta Irurako herritarrei ere irekita dago. 16 urtetik gorako neska zein mutilen parte hartu ahaliko dute 3 txapelketetan. Izen-ematea Villabonako Behar-Zana elkartearen egin beharko da etahorretarako azken eguna ekainaren 6a izango da.

Ekonomia batzordekoak lanean buru-belarri

Irura ● Kilometroen ekitaldi nagusiko tonbola eta tabernetan zozketatuko den otarraren kanpaina prestatzen ari dira.

IMANOL GARCIA

Kilometroak 2008ko Ekonomia Batzordea hainbat egitasmotan murgilduta dago. Tartearen, urriko festa nagusian izango den tonbola antolatzea eta produktuak uzten dituzten dendari eta merkatariei laguntza eskertzeko zozketa aurrera eramatea. Bestetik, hainbat herritako tabernetan kalitatezko produktuekin osatutako otarra zozketatuko dute. Ahaztu gabe autoaren zozketarako eginen dituzten irteerak.

Karmen Lobo eta Ane Amonarriz dira Batzordeko bi kide. «Orain martxan jarriko dugun egitasmoa Tolosako Inauterietan jarri genuen tonbolarekin du zerikusia», azaltzen dute. «Orduan Tolosa, Irura eta Anoetako hainbat komertzioetara joan ginen produktu eske eta orain laguntza hori eskertu nahi dugu». Horrela, laguntza hori eman zuten komertzioetara zozketa baterako txartelak eramango dituzte, denda bakoitzak bere bezeroen artean banatzeko. «Landa etxe batean hiru egonaldi zozketatuko ditugu», azaltzen dute.

Ekimen horrekin batera, urriko ekitaldi nagusian egingo den tonbolarako produktuak eskatzen hasiko dira. Oraingo honetan, Ibarrran, Villabonan eta Andoainean egingo dute bilketa. «Produktuak ematen dituzten komertzioei ere landa etxeko egonaldiarentzako zozketarentzako txartelak emango dizkiogu, hauek ere beraien bezeroen artean banatzeko». Ekainaren amaieran egingo dute zozketa hori.

Inauterietako tonbolak «erantzun oso ona» izan zuela nabarmentzen dute. Kanpaina hau burutzen ari direla, dendei ere Kilometroetako laguntzaile izateko eskaria egingo diote, beraien erakuslehoetan pegatina jartzeko au-



Karmen Lobo eta Ana Amonarriz, tabernetan zozketatuko den otarrarekin. i. g.

AURRERA BEGIRAKO EGITASMOAK

Tolosako Inauterietako tabernak ondo funtzionatu zuela ikusita, gaur hasten diren Anoetako festetan ere Kilometroetako taberna jarriko dute Goikoetxea taberna zegoen lekuan.

Horrez gain, Kilometroek eta XIV Orduko Ibaldikoko antolatzaileek kolaborazio hitzarmen bat egin dute. Horren arabera, mendi martxan izena eman dutenek euro bat gehiago jartzeko aukera izan dute Kilometroei laguntzeko. Hemen ere «erantzun ona» izan dutela azaltzen dute. Bere aldetik, Kilometroetakoek anoa-gune baterako boluntarioak bidaliko dituzte.

Beste ekimen bat spinning festa izango da, ekainaren 28an. Tolosako Zerkausiarren gaineko terrazan elkartuko dira ariketa hori gustuko dutenak. Horretarako izen-ematea etzi irekiko da www.kilometroak.net helbidean. 100 bizikleta inguru jarriko dituztela espero dute.

kera emanez. Dendariek ere bearaizentzako zozketa izango dute; bi lagunentzako afari bat. «Asko inplikatzeko ari dira eta nolabait zuzenean beraiei eskerrak emateko modu bat da», diote.

Kalitatezko produktuak

Beste egitasmo nagusi bat martxan jarriko dutena otarraren zozketarena da. Datorren astean izango da hori, Beasainetik hasi eta Hondarribia bitartean, Donostian ezik, horretarako prestatzen diren tabernetan.

Taberna horietan otar bat jarriko da kalitatezko euskal produk-

tuekin. «Lur-Lan enpresaren kolaborazioa izan dugu horretarako», diote, «eta Kilometroak-eko aurreko mantala ere izango da». Txartel bat jarriko dute, 100 zenbakirekin, eta bi eurorengatik zenbaki bat eskatu daiteke. Zenbaki guztiak hartuta daudenean zozketa egingo da.

Ekonomia Batzordearen beste arduetako bat autoaren zozketa da. «Horretaz gain, eta bere izenak azaltzen duen bezala, Batzordeak ekonomia arduratu du. Beraz, orain arte egin diren ekitaldien jarraipen ekonomikoa. Aipatzekoa da, esaterako, Alegialdean egindako I. Nañarri Rallysprintean 2.700 zaletu inguru izan zirela proba ikusten.

Horretaz gain, eta bere izenak azaltzen duen bezala, Batzordeak ekonomia arduratu du. Beraz, orain arte egin diren ekitaldien jarraipen ekonomikoa. Aipatzekoa da, esaterako, Alegialdean egindako I. Nañarri Rallysprintean 2.700 zaletu inguru izan zirela proba ikusten.

3 karpa
Jaki tipikoak
24 garagardo mota
5 KALIMOTXO ezberdin

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Alegiako lan istripua salatzen elkarretaratzeak

GIZARTEA • Joan den asteazkenean Alegian trenbidean lanean ari zen gazte bat trenak harrapatu zuen. Lan istripua salatzeko ELAK Alegian eta LABek Tolosan elkarretaratzeak egin zituzten atzo. Eguerdian bildu ziren eta 40 bat lagun

hurbildu ziren bi geltokietara. LABek *Lan baldintzek hil egiten dute* leloa, eta ELAK *Lan istripu gehiagorik ez* erabili zuten. Eguzki talde ekologistak, bere aldetik urtarrean tren geltoki asko utzita daudela salatu zuen. Aldi berean, azken lan istri-

pu hau salatu nahi izan du. «Udaletxei tren geltokien eta inguruen egoeraz jabetzeko, izan daitezkeen arriskuak analizatzeko eta Renferi irtenbidea eska diezaioten arriskuen, segurtasun faltaren eta atentzio duinarene gainean». N.U./A.I.



Goierri-Asteasuko bertsolariak poliki kantatu zuten taldeka. Atzean, Alegiako taldea: Jurgi, Aratz eta Iñaki. N.URBIZU

Eskolarteko txapelketan Kultur Etxea beteta

Alegia • Zumarraga-Urretxu, Alegia eta Goierri-Asteasuko taldeen bertsoak entzuteko jende asko hurbildu zen herrira.

NEREA URBIZU

Alegiako Kultur Etxea jendez lepo zegoen atzo Gipuzkoako Eskolarteko Bertso Txapelketa ikusteko. Taldeak hasi ziren lehenengo, gero bat batean kokoragoak aritzeko. Txikien mailan Alegia, Goierri-Asteasu eta Zumarraga-Urretxu taldeak aritu ziren. Haste-ko, aurretik prestatutako agurra kantatu zuten, bakoitzak bere moduan, baina denak onak.

Alegiarrek kartela prestatuta zeukaten eta bertan zegoen ikusgai, bertsolariak animatzeko. Alegiarrak hasi ziren agurrarekin txi-

kien mailan: Iurgi Goñi, Aratz Ira-zustabarrena eta Iñaki Artola «urduri», baina egin zuten. Bukatzeko garaian, oso gustura geratu zirela esan zuten behintzat.

Ondoren, Goierri-Asteasukoak aritu ziren, lasaiago itxuraz. Haritz Mujika, Gema Urteaga, Joanes Etxaide eta Maddi Labaka aritu ziren.

Banakako mailan

Banakako mailan, helduagoak ere «oso ondo» aritu ziren. «Hauk txikiak baino askoz gehiago kantatu behar izan dute»: Imanol Ira-zustabarrenak azken bertsoan «gustura geratu zela» komentatu zuen. Zazpi Astoren Gainean bertso eskolakoek esan dute «ondo» aritu zela eta «eskolako bertsolari-rik onena dela» gehitu dute heldu-duk. «Askok berak bezala aritu nahiko genuke!».

Bertso paper lehiaketa

Bertso paper lehiaketa 100 lagun aritu zirela kalkulatu dute Alegian, adin eta herri guztiak kontuan hartuta. «40 bat DBHn eta batxilergoan, eta lehen hezkuntzan 60 bat haur: parte-hartze ona izan da», Iker Iriarteren hitzetan.

Gai hauek jorratu behar izan zituzten: *Oria ibaian bizi den ahatea naiz; gaur ez naiz telebista aurrean eseri; kontzertu bikaina dago nire herrian gaur; eta Pernaldo Amezketarrarekin bizi nintzela egin dut amets.*

Txikiak Kultur Etxean aritu ziren, eta Aralar Institutuan, berri-iz, 12 urtetik gorakoak.

Finala, bai paperekoa eta baita bat batekoa ere datorren kanporaketan erabakiko da, hau da, Oñatin. Finala, berri-iz, Iruran izango da. Ea eskualdekoak ikusteko aukera dagoen.

Seniorrak Hitza Txapelketan gaur Beotibarren ariko dira

ERREDAKZIOA

Hitza Txapelketako norgehiagoka senior mailan gaur Muguruza-Azpiazu eta Jauregi-Gomez ariko dira 12:00etan Beotibarren. Norgehiagoka bakarra izango da.

Bestalde, joan den larunbatean Beitia-Galarraga Urmeneta-Aranalderen aurka aritu ziren eta lehen bikoteak irabazi zuen. Narbar-te-Ajuriak galdu zuen Andreu-Irretaren kontra.

'Birusak erasoan' haur antzerkia izango da gaur Gurea Antzokian

ERREDAKZIOA

Gaur, Villabonako Gurea Antzokian haur antzerkia izango da ikusgai. *Birusak erasoan* izena du eta Toni la Salantzezia izango da bertan. 18:00etan hasiko da saioa.

Kutxaren laguntza izan dute emanaldi honetarako eta doan izango da. Birusak zein diren ikusi ahal izango da, nondik datozen kontatuko dute, eta baita nolakoak diren ere...

Zinema euskaraz **berria** rekin

Maiatzaren 24an

filma DVD formatuan

DEABRU GUZTIEN URTEA DVD

Maiatzaren 27an

filma DVD formatuan

berria + **6,95€**

berria

OHARRA: biltegikoak bukatu arteko eskaintza



Pasa den urteko Atauneko edizioko une bat. ESTITXU IMAZ/GOIERRIKO HITZA

Euskal kantugintzan murgilduz

Leitza » Gaur hasiko da Euskal Kantarien III. Topaketa Anje Duhalderen hitzaldiarekin, eta Kultur Asteko lehenengo ekitaldia izanen da.

NAIARA GARZIA

Nondik gatzoz eta nora goaz lelopean gaur hasiko da Euskal Kantarien III. Topaketa. Lehenengoa Auritzen egin zuten, bigarrena Ataunen eta aurten Leitza aukeratu dute topaketa egiteko.

Gaur eta bihar Euskal Kantuzaleen Elkartek hainbat ekitaldi antolatu ditu, eta Anje Duhalde, Benito Lertxundi eta Gorka Urbizu musikariak ere bertan izanen dira, Duhalde gaur, 10:30ean zinean eta Benito Lertxundi eta Gorka Urbizu bihar, 12:30ean.

Topaketan, ordea, Euskal Herri mailan hain ezagunak diren musi-

kari hauen bisitaz gain, helburua kantua herrira zabaltzea denez, Atekabeltzek ere protagonismoa izanen du, bertan kantariak elkarrekin kantuak prestatzeko aukera izanen dute, eta perkusio ikastaroa ere bertan izanen da gaur. Zinea eta Atekabeltz izanen dira, beraz, topagunearen bi guneak, nahiz eta herrira ere, noski, festa zabalduko den.

Topaketan parte hartzeko, Oskar Estanga koordinatzaileak azaldu duenez, oraingoz 16 pertsonen izena eman dute. Bazkalduta eta afaldu Aurreran egingen dute eta lo, eskolako gimnasioan.

zehar. Kantatzeko abestien kopiak banatuko dituzte.

■ **21:30ean.** Afaria.

Maiatzak 18, igandea

■ **10:30ean, Atekabeltzen.** Kantariak elkarrekin kantuak prestatzeko tartea.

■ **12:30ean, zinean.** Mahai-inguru eskutik.

■ **14:00ean.** Bazkaria.

■ **18:00etan.** Topaketan parte hartutako kantariak eskainitako emanaldia.

» EGITARAUA

Maiatzak 17, larunbata

■ **10:30ean, zinean.** Anje Duhalde, *Euskal kantagintzaren historia-
ren laburpen txo bat, hitzez eta kantuz.*

■ **12:00etan.** Topaketa.

■ **14:00etan.** Bazkaria.

■ **16:30ean, Atekabeltzen.** Kantariak elkarrekin kantuak prestatzeko tartea.

■ **18:00etan, Atekabeltzen.** Perkusio ikastaroa, Oskar Estangaren eskutik.

■ **20:00etan.** Atekabeltzetik abiatuta, kantu-jira herriko kaleetan

«Guk hasi ginenean euskal iturbururik ez genuen»

BENITO LERTXUNDI » Abeslaria

Leitza » Euskal Kantarien III. Topaketaren barruan, bihar mahai-inguru eskainiko du Lertxundi Gorka Urbizurekin batera.

NAIARA GARZIA

Benito Lertxundi (Orío, 1942) euskal kantagintzan ezinbestekoa den abeslari bat da eta urte asko darabatzat abesten. Bihar, Gorka Urbizurekin batera kantagintzaren lehenaren eta orainaren inguruko mahai-inguru eskainiko du zinean.

Zertan aldatu da euskal kantagintza zure belaunalditik honera?

Gure belaunaldiak hasi egin zuen kantaldia, hau da, guk hasi ginenean euskal iturbururik ez genuen, geroztik etorri diren belaunaldiek badute. Gaur egun euskal kantagintza errealitate bat da eta hortik edan dute. Guk hutsetik hasi behar izan genuen eta gure erreferentziak ziren kanpotik eta irratiari entzuten genuen musika, bertan koruak eta bertsolariak besterik ez zeuden. Bestalde, gure garaian hain zuzen gure korrante nagusia,

besteak beste, protesta kanta zen, nahiz eta bazen ere konsumoko musika ere, baina korrante serioa abesti protesta zen. Guk horri heldu genion gure bidea egiteko.

Ondoren rocka iritsi zen, ez?

Bai, kanta munduan gure estiloan kantari gehiegi ez ziren sortu, Ruper, Niko Etxart, Anje.. baina 80an rockaren fenomeno etorri zen, mundu mailan ere horrela zabaldu baitzen. Hor une bat izan da euskal kantagintza egiteko joera hori rokaratu egin dela. Halere ez da erraz esatea noiz hasten den rocka edo kantu moeta bat eta non amaitzen den. Azkenean gure ildo nagusia izaten da autore kanta deitua izan den hori eta nolabait gidatzen duen kontzeptua konpromisoa edo bizitzan eta gizartean dauden gauzetaz mintzatzeko gai bat dela da.

Rockak ere egiten du hori zure ustez?

Bai, baina beste modu batetara, modu iluntxeago batean, nahastuago dago errebeldia indibidualen, gizarteko gauzekin baino.

Euskal kantagintza rockari erabat lotuta al dago, ez da beste pausurik eman?



HITZA

Gertatzen dena da normalean munduan dauden beste herrialdeetan, herrialde normalagoetan, tradizio askoz ere luzeagoak direla, eta guk esan beharra dugu azken finean gure tradizioa 43 urtetakoa dela, eta hori korrante ezberdinak sortzeko nahiko tradizio laburra da. Ez da ona trokel beretik pasatako musikariak etortzea, baina orokorrean oso nortasun berezia dutenak eta oso sormen bere-

«Musika kultura da eta hori baloratzeko lan egin behar da»

GORKA URBIZU » Musikaria


Leitza » Euskal kantuzaleen lehenaren, orainaren eta geroaren inguruan mintzatzeko da Urbizu, baita Lertxundi ere.

ERREDAKZIOA

Berri Txarrak taldeko abeslaria eta gitarra-jotzailea da Gorka Urbizu (1977, Lekunberri). Etzi Leitza zinean euskal kantagintzari buruz ariko da Benito Lertxundirekin batera.

Gaur egun jendea kontzertuetara entzuterako joaten da?

Bai, hala da hein batean. Lehen zegoen musika bakarra zen, hori zen zegoena. Lehen jendea gehiago militantziarengatik joango zen kontzertuetara, eta gaur egun bada oraindik talde batzuk kutsu politikoa duten jaialdietan adibidez entzun daitezkeenak, baina egia da badagoela beste kontzertu pila bat, jendea musika entzuteagatik etortzen dena. Aretoak daude orain, ongi prestatuta daudenak eta jendea etortzen da musikaz go-



N.U.

zatzeko eta inongo konnotazioirik gabe.

Baina oraindik protesta kantuak egiten dira.

Oraindik ez da bukatu protesta kantuena. Egiten ditugu gaur egun, gure modura, eta kontzertu batzuk horrelakoak dira: Topagunea, esaterako. Baina jendea berta-

ra joango da edo musika entzuteagatik, edo entzuteagatik eta militantziagatik, edo militantziagatik bakarrik. Baina egia da gaur egun portzentai handi bat musika entzuteagatik bakarrik joaten dena.

Zein musika izango genuke duela 40 urte adibidez, Ez dok 13koak egon izan ez balira?

Hori ez dago jakiterik. Nire teoria da aurrekoek egindakoa jasotzen dugula guk eta maila igotzen -ez hobetzearen zentzuarekin-, saiatzen gara: beraiek egindako lana aprobetxatu eta hortik aurrera egin; eskailera horretan pauso bat eman. Alde horretatik, nik uste urrats bakoitza dela inportatea. Ez dok 13 ez balitz existitu, gero etorriko litzateke beste mugimendu kulturalen bat, eta beste bat izango zen. Orain gaudenok beste kontestatu politiko bat bizi dugu eta beste garai batean, eta ondorengoek ere guk gaur egiten dugun musikahartuko dute kontuan.

Orduan, duela 10 urtetik gaur egun arte egindako musikak badu Ez dok 13tik zer bait?

Bai: musikalki, nire kasuan agian

zia eta sakona duen jendea ez da etortzen hain erraz, horiek tantaka tantaka etortzen dira, eta bitarte horretan sortzen dira beste kantari batzuk jarraipena ematen aritzen direnak.

Tantaka sortu diren abesle horietakoren bat?

Ruper Ordorika edo gazteen artean Mikel Urdangarin hor dago, baina gertatzen dena da kantagintzarako baldintza oso hobekia ere ez daudela, garai batean baino hobekia bai. Niri kuriosoa egiten zait nola oraindik ez den sortu animadore multzo bat. Udaletxeetan badaude antolamenduz arduratzen direnak, baina horrelako bokazioa dutenak, eta hori pil-pilean bizitzen duen jende moeta bat, animadore bezala lan egingo lukeena udaletxeetan, bizitza ematen guzti honi... hori ez.

Horren gabezia nabaritzen duzu?

Bai, ikaragarria. Hauteskunde urteak urte txarrak izaten dira eta edozein garaietan hauteskundeak daude, eta udaletxeek badirudi hauteskunde garaiean gelditu egiten direla, ez dakit zertan okupatzen duten beraien burua, eta zikloka mugitzen da musika ondorioz. Orokorrean gauza hauek jarraitu behar badute, herriari kasu gehiago egin behar zaio.

Entzulegoaren jarrera ere aldatu egin al da?

Noski, baino hobera egin du. Garai batean ez genuen oso ongi jakiten kantaldira etortzen zen jendea, hainbestera inok hutsunea zego-

enez hasi ginenean, militantzia-erengatik etortzen zen, edo kantaldiaz gozatzera. Gaur egun oso garbi esan daiteke kantaldiaz gozatzera etortzen dela eta horrek gauza asko adierazten ditu, gai garestuak herriari gozatzeko adina gauzak egiteko, artea transmititzen badakigula, azken finean. Hori normalizatzea polita da.

Ez dok 13 ezinbestekoa izan da euskal kantagintzarentzat?

Hasiera izan zen Ez dok 13. Ez dok 13 izan da nire ezagueran behintzat herri honetan gertatu den fenomenorik eraginkorrena. Ez da kantagintza hasi zuena bakarrik, nik uste aro bat dela, horrekin batera hasten da jendea idazten, antzerkiaren munduan gauzak egiten, dantza munduan bilketak egiten, sortzen dira eskultoreen eta pintoreen talde batzuk...

Garaiak ere eraginik izanen zuen, ez?

Frankismoaren une larri batean egin zuen eztanda, orduan bertso-lariak eta trikitilariak zeuden eta kito. Gu gitarrarekin hasi ginenean, orain *Argia* zen aldizkaria orduan zen *Zeruko Argia* eta bertan publikatu zen artikulu bat egurra ematen guri, gitarra hartu genuelako eskuetan. Hori zen ordungo gizartea. Gitarra hartzea zen euskaltasunari ihes egitea. Horrekin ikusten da ze postal zen gure herria. Ez dok 13rekin sortu zen bezala sortu izan ez balitz euskal kantagintza, ni ziur nago gaur ez zela euskal musikarik izanen.

ez. Niri heldu zaidan adibidez, euskaraz abestea normal egite hori, ez da inongo nobedadea. Seguraski eman zaizkit Ez dok 13ren gauza asko ni ohartu gabe, baina hori badakigu baloratzen. Dudik gabe euskal musikaren parte sentitzen naiz eta Ez dok 13ri zor zaio, ez guztia, baina bai hein batean: bere eragina utzi du.

Egungo euskal musika taldeek zeri heltzen diote lehenengo? Musika egiteari?

Denek ez dute gauza bera bilatzen: batzuk ondo pasatzeko, beste batzuk musika artetzat hartuta, beste batzuk fama nahi dute bilatu zuzenean eta beste batzuk helburu politikoak bultzatzeko. Ez dago erantzen bateratu bat.

Horien artean zein da gaur egun orokorrena?

Musika gauza polita da, plazerra ematen du jotzeak eta entzuteak. Hasierako izpi hori plazerragatik jaiotzen da. Ondoren, erabaki batzuk hartu behar dira, baina hasiera berdintsua dute denek. Musika oso esker onekoa da.

Euskal musikan ikusten duzun hutsune nagusia zein da?

Dagoen eskaintza izugarria da: talde asko daude eta estilo asko jorratzen dira, aurreiritzi asko apurtuz. Alde horretatik osasuntsu ikusten dut musika. Baina bi hutsune nagusi ikusten ditut, ez musikan zuzenean eragiten dutenak, baina bai musikaren ingurukoak direnak:

musikaren industriaren krisia, euskogintza: inork ez daki nora doan hau, diskoak ez dira saltzen, jendeak ez du baloratzen musika, ez da artetzat hartzen. Eta bigarren hutsunea komunikabideetan dago. Aisialdia aparte, zenbait irrati publikoak adibidez, bete beharko lukete heziketa funtzio bat. Irrati bat ez da multinazionalak egiten dituzten kantuak eta singleak bakarrik jartzeko. Irrati publikoak batez ere, entzulearengan eragina du eta bitarteko hori, egiten dena baino askoz hobe egin beharko litzateke.

Azken puntu hau nola alda daiteke?

Hasteko, dirua jarri heziketa funtzio hori bultzatzeko eta gero hezitzeko. Orain entzuten diren kantu asko kulturalki oso balore gutxiokoa dira. Jendeak, horrela uste du kantu tontakeria bat dela, ongi pasatzeko produktu bat. Ez badugu baloratzen musika arte bezala, zertarako ordaindu disko bat? Non entzun daiteke, adibidez, Bob Marleyri buruzko historia? Edo Ez dok 13ren historia? Irrati saio batzuk kenduta, ez dago eskaintza hori. Musika kultura da eta hori baloratzeke lana egin behar da, jendeak balora dezan. Jendeak gero aukeratu du zer den ona eta zer ez. Baina irratia bezala, telebista ere. Kultura saiorik onenak ordu txikitatzen eta asteazken zehar daude... Norik ikusiko ditu?



Irurako Trinketeen Pilota Eskolako haurren partidak izan ziren atzo, Kultur Astearen baitan. ASIER IMAZ

Iruran atzo amaitu zen kultur ekimena bizirik da oraindik Zizurkil eta Alkizan

Kultura » Zizurkilen gaur X. Biatloia lehiatuko da eta Alkizan txontxongilo tailerra eta spinning-a egongo dira besteak beste.

ren kasuan, ekimenaren barneko azken ekitaldiak atzo jaso zituen. Alkiza bihar aterako da uztarririk eta Zizurkil maiatzaren itzulian.

Adin guztiak protagonista

Atzo egin ziren kultur asteko azken ekitaldiak. Lehenik jubilatuek ibilaldi neurtua egin zuten. Ondoren Pilota Eskolako jokalarien partidua lehiatu ziren eta azkenik *Txapela buruan eta ibili munduan* izeneko bakarriketa izan zuten.

Zizurkil eta Alkiza

Atzo bertso eta musika ikuskizuna eskaini zuten Otaño ikastetxearen 25. urteurrena ospatuz. Gaur *Maiatzak Saltsan!*-en barnean Zizurkilgo X. Biatloia jokatuko da.

Alkizako Kultur Astearen azkenik, haur jolasak eta herriari buruzko hitzaldia egon ziren atzo. Gaur 10:00etan txontxongilo tailerra egongo da. 15:30ean Spinning saioa eta 18:00etan frontenis txapelketaren finalak eta garagardo dastaketa egongo dira.

ASIER IMAZ

Irura, Alkiza eta Zizurkil kulturaren uztarrian aurkitzen diren hiru herri dira edo izan dira. Akiulu lanetan *Maiatzak Saltsan!* eta kultur asteak izan dituzte, izan ere, Irura-



«Elkartasun eta salaketa» ekitaldiak

VILLABONA » Auzitegi Nazionalen Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideak epaitzen ari dira, horien artean Julen Zelarain billabonatarra aurkitzen da. Herriko AMMK «elkartasuna azaltzeko eta errepresioa sa-

lartzeko» herenegun Zelarain beraren hitzaldia antolatzen zuten. Bertara 80 pertsona joan ziren eta antolatzailerak «gustura» azaldu ziren. Atzo berriz kotxe karabana egin zuten Leibitiki irtenda. A. IMAZ

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldek beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Albiztur.** Kultur Astearen barruan, hilaren 24ko paella jaterako txartelak salgai udaletxean, Arkaiz elkartearen eta Herriko Etxea jaterako, 5 eurotan. Postrea, kafea, kopa eta musika ere izango da.
- **Ibarra.** Lizarrara iteera antolatuta du Bizi nahi jubilatuta elkarteak hilaren 23rako. Izen-ematea, elkartean 30 eurotan (ez bazkideek, 32).
- **Tolosa.** Jose Mari Gorrotxategi maisu konfiteroari omenaldia udal batzar aretoan 11:00etan eta ondoren bere argazkien erakusketa inauguratuko da Aranburun.

Jaiak

- **Tolosa.** Txapin festa: egun osoko festa antolatuta dute herri gazteek. 11:00etan hasiko da jaiak poteoarekin lokaletatik pasatuz trikitilari, dultzainero eta Mulambo perkusio taldearekin; 14:30ean gazte bazkaria Abastosen,...

Zinema

- **Tolosa.** *Papa por sorpresa* filma emango dute Leidor aretoan gaur eta bihar 17:00etan. 19:30ean *El ultimo gran mago*. Eta 22:30ean *La familia Savages* filma.
- **Villabona.** Gurea aretoan, *Falsificadores* filma emango dute gaur 22:30ean; bihar, 20:00etan; eta

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak Emilio (euskal preso politikoa). Borroka da bide bakarra. Maite zaitugu.... Villabonatik.



Urte askoan!

Nahia Martin Kortajarena (Zizurkil). Gaur 2 urte. Bi muxu potolo etxekoan partetik.



Urte askoan!

Iker Aginaga Bikuña (Villabona). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Luisa Jauregi (Gaztelu). Gaur 94 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

etzi, 21:30ean. Haurrentzako, *Papa por sorpresa* bihar, 18:00etan.

Erakusketak

- **Tolosa.** Gizon eta emakume homosexualak historian zehar argazki erakusketa Kultur Etxean.
- **Zizurkil.** Mugarik Gabeko Medikuak elkartean *Krisi ahaztuak. Bizitza ezikiusiak* argazki erakusketa Atxulondon 12tik 16 eta Iriarte kultur etxean 19tik 23ra.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

zeu
ileapaindegia
ileapaindegi berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427

santa klara 8. Tolosa

hazi nahi duten pertsonentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte parte-hartzeari buruzko hiru argitalpen eskaintzen dizkizu

Izena eman

Deitu: 943 25 10 05 | Idatzi: partehartu@baketik.org | Sarri: www.baketik.org

Parte hartzen **persona eta gizarte moduan hazten gara**

kultura politik berria

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa